

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEZAKO UDALA

Behin betiko onespena ematea kultura, kirol edota gizarte jardueren antolaketa ordaintzeko dirulaguntzen oinarriak arautzen dituen berariazko udal ordenantzari

Lezako Udalak 2026ko urtarrilaren 30ean egindako ohiko bilkuran kultura, kirol edota gizarte jardueren antolaketa ordaintzeko dirulaguntzen oinarriak arautzen dituen berariazko udal ordenantzari hasierako onespena eman zion erabakiaren aurka erreklamazioak aurkezteko epea igaro ondoren, erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak, Toki Ogasunak arautzen dituenak, 16.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, erabaki hori behin betikotzat jotzen da, ordenantza aldatu duen testua osorik jarri da jendaurrean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49 c) eta 70.2 artikuluetan araututakoa betez.

Kultura, kirol edota gizarte jardueren antolaketa ordaintzeko dirulaguntzen oinarriak arautzen dituen berariazko ordenantza

1. artikulua. Xedea

Berariazko ordenantza honen bidez, ezartzen dira Lezako udalerrian egiten diren kultura, kirol eta gizarte jardueren antolaketak berekin dakartzan gastuak ordaintzeko dirulaguntzak emateko arauak.

2. artikulua. Onuradunak

Dirulaguntza hauen onuradun izan daitezke:

– Irabazteko asmorik gabeko erakunde publikoak zein entitate pribatuak (kulturaren, kirolaren edo gizartearen arloetako elkarteak, taldeak eta fundazioak), legez eratuta eta Lezako elkarteen udal erregistroan inskribatuta badaude.

– Hauek ere izan daitezke dirulaguntzen onuradun: Lezako udalerrian diharduten irabazteko asmorik gabeko entitateak, nahiz eta egoitza bertan ez eduki. Entitate horiek EAEko Elkartearen Erregistro Orokorrean edo EAEko Kirol Entitateen Erregistroan egon beharko dute inskribatuta.

Dirulaguntza eskatzen duten entitateek egunean eduki behar dituzte beren zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, bai eskaera aurkezten denean, bai prozesu osoan (dirulaguntza ematea eta ordaintzea).

3. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen programak

Lezako udalerrian kulturaren, euskararen, aisiaren, kirolen eta gizarte ongizatearen arloetan egiten diren jarduerak jaso dezakete dirulaguntza, lehentasuna emanez ondoko programa hauei:

- Lezako udalerrian gizarte ongizatea eragiten dutenek.
- Euskararen erabilera indartu eta errazten dutenek.
- Herritarren parte hartzea indartzen dutenek.
- Udalerria bera bultzatzen dutenek.
- Kultura eta kirola, oro har, eta batez ere bertako kirola sustatzen dutenak.

– Gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasuna bermatzen duten jarduera edota ekintzak, edota pertsona behartsuenen edo gizartean baztertuta geratzeko arriskuan daudenen parte-hartzea eta gizarteratzea eragiten edo bermatzen dituztenak.

- Bertako tradizioak berreskuratzea bultzatzen dutenek.
- Ingurumenarekiko sentsibilizazioa indartzen dutenek.
- Lezako ondare historikoa eta kulturala berreskuratzea dakartzatzenek.

4. artikulua. Eskaerak aurkeztea

1. Jarduera edo programetarako eskaerak, programatutako jarduera hasi baino hilabete lehenago aurkeztu beharko dira beranduenez.

2. Eskaera Lezako Udalaren erregistroan aurkeztu beharko da, edo 39/2015 Legeak (urriaren 1ekoa, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena) 16.4 artikuluan adierazten dituen bideetako edozeinetatik.

3. Dirulaguntza eskaera bat aurkezteak berekin dakar oinarri arautzaile hauetan ezartzen dena berariaz eta modu formalean onartzea.

5. artikulua. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko agiriak

- Udalak emandako eskaera ofiziala.
- Inprimaki ofiziala. Inprimaki bat bete beharko da programa bakoitzeko.
- Sozietate egoitza Lezako udalerritik kanpo daukaten irabazteko asmorik gabeko entitate-entzat bakarrik: estatutuen fotokopia eta legez eratuta eta EAEko Elkartearen Erregistro Oroko-orean edo EAEko Kirol Entitatearen Erregistroan inskribatuta daudela frogatzen duten agiriak.

Aurreko deialdiren batean agiriok aurkeztu dituztenek ez dituzte berriz aurkeztu beharko, estatutuetan ezer aldatu ez bada.

6. artikulua. Dirulaguntzak emateko irizpideak

Laguntzen zenbatekoa irizpide honen arabera finkatuko da:

DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN GASTU KONPUTAGARRIAK	EHUNEKOA
A) Fitxak - kuotak - lizentziak	100
B) Arbitrajeak, begiraleak, hizlariak, gidariak	100
C) Alokairua: materiala, tokiak, eta abar	100
D) Jarduketak, argitalpenak	100
E) Jardueraren berariazko aseguruak	100
F) Anbulantzia, posta, tasak...	100
G) Sarrerak	100
H) Autobusak, garraioa	75
I) Material suntsikorra	75
J) Ostatua, anoa	75
K) Garaikurrak, sariak	30
L) Material inbentariagarria	30

Honako hauek ez dira diruz lagunduko:

- Entitatearen mantentze eta funtzionamendu gastu orokorrak.
- Antolaketa gastuak (sariak, soldatak, ...) eta protokolo gastuak.
- Ostatua, turismo irteeretan eta antzekoetan.
- Fakturen bidez frogatu ezin daitezkeen gastuak (ikus frogatzeko modua 10. artikuluan).

Dirulaguntzan sar daitezke kartelek, programek eta publizitateak eragiten dituzten gastuak, baldin eta Udalak onartutako hizkuntza irizpideak betetzen badira (bi hizkuntzetan egin behar dira).

7. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoa

Udalak ordaindu ahal izango du, gehienez, diruz lagundu daitezkeen programaren kostuaren ehuneko 80.

Hala ere, Udalak izapidetze berezia eman ahal izango die udalerrarentzat interes berezikoak diren programei, eta programa horiek eragiten duten kostuaren ehuneko 100eko dirulaguntza eman ahal izango du.

Dirulaguntzen gutzirako zenbatekoa inolaz ere ezin da izan Lezako Udalak aurrekontu orokorrean xede horietarako partidetan ezarritako kopurua baino gehiago.

Proiektua finantzatzeko beste erakunde baten laguntzaren bat jaso dela edo bestelako sarreraren bat erabili dela jakinez gero, emandako dirulaguntza aldatu ahal izango da, gastuen eta sarreraren behin betiko likidazioaren emaitzako defizita estaltzen duen zenbatekoa izan dadin.

8. artikulua. Dirulaguntzen prozeduran eskumena duten organoak

8.1. Instrukziorako eta ebazpenerako organo eskuduna.

Espedientea bideratzeko organo eskuduna Kultura, Kirol eta Gizarte Ongizate Batzordea izango da.

Ebazteko eskumena duen organoa alkatetza da, aurretiaz Ogasun Batzordeak, Kultura, Kirol eta Gizarte Ongizate Batzordeak eta udalbatzak baiezko irizpena emanda.

8.2. Aztertzea eta ebaztea.

Espedientearen instrukzioan lan hauek egin behar dira:

- Ebazpena emateko beharrezkotzat jotzen diren txosten guztiak eskatu, besteak beste, kulturako teknikariena eta idazkaritza-kontuhartzaitzarena.
- Eskaerak ebaluatu, oinarri arautzaile hauetan zehazten diren balioespen irizpideen arabera.

Alkateak ebazpen arrazoitu bidez ebatziko du dirulaguntzak ematea.

Ebazpena hartzeko epea 4 hilabete izango da, eskaerak aurkezten direnetik kontatuta. Ebazpena epe horretan ematen eta jakinarazten ez bada, eskaera ezetsizat jo beharko da.

Ebazpenak administrazio bidea agortzen du. Beraz, berorren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke administrazio auzietarako epaitegi nagusietan, Administrazioarekiko Auzibideetarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 8,1.c) artikuluan xedatzen duenaren ildotik. Horretarako bi hilabete izango dira ebazpena jakinarazten denetik aurrera.

Halaber, horren aurretik errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Lezako Udaleko alkatetzari hilabeteko epean, 30/1992 Legeak (azaroaren 27koa, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearena) 123. eta 124. artikuluetan xedatzen duenarekin bat etorritik –4/1999 Legeak (urtarrilaren 13koa, euskal kultura ondarearena) emandako idazkeran.

9. artikulua. Justifikatzeko epea

Dirulaguntza jasotzen duten entitateek dirulaguntza eskaeraren hurrengo urteko urtarrilean aurkeztu behar izango dituzte hurrengo oinarrian azaltzen diren froga-agiriak.

10. artikulua. Entitate onuradunek aurkeztu beharreko froga-agiriak

1. Memoria-likidazioa (eredua udal bulegoetan eska daiteke); datu hauek adierazi behar dira hartan:

- Jarduera.
- Aldiak: egunak eta orduak.
- Jarduera zehaztu: giza baliabideak, erabilitako materialak, non egin den.
- Parte hartzaileak.
- Helburuak eta balioespena.
- Likidazio ekonomikoa: gastuak eta sarrerak zehaztu.

2. Dirulaguntzan sartzen diren gastuen froga-agiriak: jatorrizko fakturak edo fotokopia konpultsatuak.

Gastuak frogatzeko ez dira onartuko ondoko datuak argi eta garbi ezarrita ez dituzten ordain-agiriak, fakturak, tiketak eta gainerakoak:

- Emailea, izenarekin edo sozietatearen izenarekin, eta NAN edo IFZrekin.
- Hartzailea: egoitza eta IFZ (dirulaguntza jaso duen entitatea izan behar da).
- Gastuaren xedea.
- Data.
- Balio erantsiaren gaineko zerga: ezarri d(ir) en zerga tasa(k).

3. Programen aleak, argitaratuz gero, Lezako Udalaren babesaren aipamena eduki behar dute.

11. artikulua. Dirulaguntza ordaintzea

– Urteko programak: Gainerakoa gastuak frogatu eta egindako jardueren memoria aurkeztu ondoren emango da.

– Dirulaguntza gastuak frogatu eta egindako jardueraren memoria-likidazioa aurkeztutakoan ordainduko da, jarduera amaitutakoan.

12. artikulua. Dirulaguntza aldatzea

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan egindako edozein aldaketak, ebazpena aldatzea ekar dezake.

13. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna

Laguntza honekin batera beste edozein laguntza edo dirulaguntza ere eskura daiteke.

Udalak emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, bera bakarrik zein beste administrazio, entitate edo organismo publiko batzuek emandako laguntza zein dirulaguntzekin bat eginda, ezin da izan inolaz ere onuradunak egindako jardueraren kostua baino gehiago.

14. artikulua. Dirulaguntza itzultzea

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrek 37. artikuluan arautzen dituen kasuetako bat gertatuz gero, onuradunak jasotako diru kopurua itzuli beharko du, eta gainera berandutze interesak ordaindu beharko ditu, hain zuzen ere dirulaguntza jaso duenetik dirua itzuli beharra ezarri arte sortutakoak.

15. artikulua. Interpretazioa

Oinarri hauen interpretazioan sortzen diren zalantzak alkateak ebatziko ditu, aurretiaz Kultura, Kirol eta Gizarte Ongizate Batzordeak eta dagokien teknikariek txostena emanda.

16. artikulua. Arau haustek eta zehapenak

Dirulaguntzen arloko administrazioko arau haustek dira Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak IV. tituluari aipatzen dituen egiteak eta ez-egiteak, eta bertan ezarritako prozeduraren arabera zehatuko dira.

17. artikulua. Legeria osagarria

Oinarri hauetan xedatzen ez den guztirako, ondoko hauek hartuko dira kontuan: azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzena; eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arautegia onartzen duena.

Leza, 2026ko martxoaren 26a

Alkatea

JOSÉ IGNACIO GALLO HERRERA